

# Inklusioaren alde borrokatuz, pobrezia bizkarra ematen diogu

**Anna Marie Karaos**

ELIZAKO ETA GIZARTE GAETAKO INSTITUTUA. MANILA, FILIPINAK

Nazio Batuek 2000ko irailean onartu zuten Milurteko Adierazpena: une historikoa izan zen hura, mundu-mailako elkarlanerako aukera ireki baitzuen, pobrezia mundutik behin betiko desagerrarazteko. Milurteko Garapen Helburuen definizioan (MGH) eta 2015. urterako lortu beharreko emaitzen zehaztapenean lortutako adostasunak itxaropenaren atea ireki zizkien Hegoaldeko herrialdeei. Hala ere, emaitza horiek lortzeko bitartekoei buruzko eztabaida askoz ere iheskorragoa izan zen.

## Ikuspegi desberdinak

Oro har, MGHak betetzea nagusiki gobernuen eginkizuna dela uste dute herrialde behartsuek eta aberatsek. Horrela, eta gobernu bakoitzaren ikuspegiaren arabera, MGHak bi modutara ikus daitezke, aldi berean: errealtatetik urrunduak edo anbizio gutxikoak. Zenbaiten ustez, helburu horiekiko adostasuna adierazi arren hainbat gobernu ez dute ez borondaterik, ez behar beste gogorik horiek guztiak lortzeko. Bestalde, beste batzuek uste dute gobernuak nahita ezarri dituztela oso helburu txikiak, horiek gutxieneko esfortzua eginez lortzeko, nahiz eta horrek behartsuen egoera nabarmen ez duen hobetuko.

Bi ikuspegi horiek (nahiko ezkorrek biak ere) garrantzi handia ematen diete gobernuari MGHak lortzeko orduan. Hala ere, Hegoal-

deko hainbat herrialdeetako esperientziei erreparatuz gero, argi gertatzen da behartsuen bizitza-kalitatearen hobekuntza behartsuek beraiek bultzatutako ekimenen ondorioz lortzen dela. Sarritan, esfortzu horien lorpenak pertsonak gobernantza-prozesuetan parte hartzeko duten eskubidean oinarritzen dira.

## Parte-hartzea bideratzeko ahaleginak

Gobernantza-sistema gehienek ez dute behartsuen parte-hartzea kontuan hartzen eta, horrenbestez, haien beharrak ez dira aintzakotzat hartzen prozesu politikoetan, ezta garapen-programak abiarazteko orduan ere. Hainbat kasutan, behartsuen garapenaren aldeko emaitza positiboak gobernuari beren eginbeharrak betearazteko (oinarrizko beharrak eta garapenerako eskubideak) pertsona horiek egiten dituzten ahaleginetan oinarritzen dira. Beraz, agerikoa da MGHak lortzeko ahalegin handiagoak egin behar direla behartsuak prozesu politikoetan sar daitezen.

Hori dela-eta, uste dugu Hegoaldeko herrialdeek MGHak lortzen laguntzeko duten gaitasuna sendotzeko neurriei buruzko eztabaida pertsona horiek pobrezia aurre egiteko dituzten esperientzia zehatzak partekatuz bultzatu daitekeela. Bilduma honetan aurkeztu diren kontakizunetako herriek gobernantza-eta garapen-prozesuetan sartzeko egiten duten borroka berri ematen digute. Alde



Pobrezia desagerrarazteko, baztertutako pertsonak kontuan hartu behar dira, ezinbestean, erabakiak hartzeko orduan.

horretatik, istorio horiek hainbat elementu eta gako ematen dizkigute pertsona horien arazoak eta oztopoak ulertzeko, baita oztopo horiek nola gainditzen dituzten eta parte hartzeko eskubidea eta garapen-eskubidea nola defendatzen duten ikusteko.

Kontakizun horien bidez, honako uste sendo hau helarazi nahi diegu irakurleei: pobrezia errotik kentzeko ezinbestekoa dela behartsuen eta baztertuen ahotsa entzutea, horiek ere helburuei eta bitartekoei buruzko erabakietan parte har dezaten. Herrialdeek MGHak modu esanguratsuan eta iraunkorrean lor ditzaten, beharrezkoa da gobernantza-sistema erreformatzea (bai tokiko mailan, bai nazioartean), ahots horiek guztiak tokia izan deza-

ten. Lekukotasun horiek guztiak berretsi egingen dute guk irmoki sinesten duguna: alegia, esfortzuaren eta konpromisoaren bidez, posible dela gobernantza arduratsua eta gardena lortzea. •

**Hegoaldeko hainbat herrialdetako esperientziei erreparatuz gero, argi gertatzen da behartsuen bizitza-kalitatearen hobekuntza behartsuek beraien bultzatutako ekimenen ondorioz lortzen dela.**

# Tsunami, Gobernantza eta “Social Watch – Tamil Nadu”

**Manu Alphonse sj**

SOCIAL WATCH - TAMIL NADU

Lurrikarek eta tsunamiek agerian uzten dute lurrazalaren azpiko faila tektonikoen etengabeko mugimendua. Alabaina, are eta garrantzitsuagoak dira mugimendu horiek erakusten dizkiguten komunitateen eta gizartearen faila sozio-politikoak: bazterketa sozio-kulturalak (kastak, esaterako), baliabide ekonomikoaren eta botere politikoaren banaketa ezberdina eta onartezina edo gestio publikoaren ustelkeria.

2004ko abenduan Asiako kostaldea astindu zuen Tsunamia suntsipen ikaragarri betetako mezularia izan zen: ehun milaka giza bizitza galdata, hainbat hamarkadataro lanarekin lortutako bitartekoak suntsituta, hainbat eta hainbat familia eta komunitate sakabanatuta edo erabat desaginda...

Hondamendi naturalekin gertatzen denez, horien ondorioek neurririk gabe eragiten diete gizarteko talde baztertuenei: behartsuei, indigenei, emakumei eta haurrei, besteak beste. Ohikoa denez, hondamendiek eta horien ondorioek areagotu egiten dituzte desberdintasunak eta bidegabekeriak: gaur egun gure gizartean inoiz baino ohikoagoak diren bidegabekeriak, hain zuzen.

Tsunamiak elkartasun-uhin ikaragarria piztu zuen mundu osoan eta, ondorioz, oraindik ere iristen jarraitzen duen funts-kopuru handia sortu zen. Berehalako laguntza-fasea igaro ondoren, Tsunamiak suntsitutako kostaldeko komunitateek are eta erronka handiagoak

dituzte aurrean: esaterako, etxebizitzak lortzea eta bizimodu iraunkorrak sortzea.

Baztertutako pertsonak osatzen dute suspertzeko eta aurrera ateratzeko gaitasun gehien duen taldea. Hondamendi larrienak ere gainditzeko behar beste indar dute, baita bizitzako bideak leheneratzeko ere. Tsunamiaren esperientziak ere hala erakutsi digu. Munduak kostaldeko komunitateak biktima gisa ikusteko joera duen bitartean, komunitate horiek pixkanaka baina pauso sendoz heldu zioten bizitza eta baliabideak leheneratzeko prozesu mingarriari.

## Tsunami eta Gobernantza:

Komunitateek beren bizitzak leheneratzeko adorea biltzen duten heinean, gero eta erronka gehiago aurkitzen dituzte aurrean, bai tokiko gobernantzari, bai gobernantza nazionalari, bai nazioarteko gobernantzari dagokionez. Izan ere, horiek guztiek Tsunami naturala gizakiak berak sortutako ustelkeriaren, zapalkuntzaren eta bazterketaren tsunamiekin ordezkatzeko mehatxua ekarri dute, eta horrek areagotu egiten ditu komunitate horien hiltzori mentala eta kezka.

Gaur arte, sorospen- eta birgaitze-prozesuan zehar, botere nazionalak eta nazioarteko botere gorenek alde batera utzi dituzte tokiko komunitateak eta tokiko mailan hautatutako gobernu-ordezkeriak. Gauzak horrela, kalte-tutako komunitateak laguntzaren hartzaila

gisa hartzen dira (mendekoak, beraz), berre-raikitze-prozesuaren protagonista nagusi izan beharrean. Alde horretatik, gobernuaren eta nazioarteko agentzia pribatuen gardentasuna ez da inondik inora agertu.

Ekonomikoki ahulenak diren sektoreek (arrantza-ontzi txikiak, merkataritza txikiak, langile espezializatuak, etab.) hondamendiaren kalterik handienak jasan dituzten arren, gobernu-laguntza gehiena boteretsuenen esku geratu da (arraste-arrantzarako ontzi handien jabeak, alderdi politikoak eta kontratistak). Hondamendiaren ondoren bizitzari eusteko lanik handiena egin dutenak izan arren, tokiko gobernuak (gizonen esku daude) eta gobernu-sarearen maila guztiek sistematikoki baztertu izan dituzte emakumeak erabakiak hartzeko prozesuetatik. Dalit herriak (“ukiezinak”) eta baztertutako beste zenbait komunitatek ere berdin-berdin jasan dituzte Tsunamiaren eraginak, baina horiek ere gobernuaren laguntzarik gabe geratu dira, baita birgaitze-prozesuetan parte hartu gabe ere.

Gizarte zibilak eta gobernu kanpoko erakundeek eginkizun garrantzitsuak izan dituzte. Hala ere, horien arteko lehiak, lanen bikoizketak edo bertakoak kontuan hartu gabe kanpoko irizpideak inposatu izanak nahasdura handia sortu dute kaltetutako komunitateetan, etorkizun iraunkorrari dagokionez.

### **Gobernantzarako ekimen bat:**

Egoera horren aurrean, Social Watch – Tamil Nadu erakundeak tokiko komunitateekin batera dihardu lanean 2004ko abenduaren 26tik, gobernantzarekin lotutako arazo larriei erantzun eraginkorrek eman ahal izateko. Social Watch – Tamil Nadu estatu-mailako ikerketa- eta baliabide-zentro bat da eta Tamil

Naduko (Indian hegoaldean dagoen estatu, Tsunamiaren ondorioak gehien jasan dituen) Chennai hiriburuan du egoitza nagusia. Zentro hori Tamil Nadu Herriaren Gizarte Garapenerako Foroaren bederatzigarren urte luzeko esperientziaren ondorioz sortu zen.

Azken 9 urteetan (1995-2004), el Tamil Nadu Herriaren Gizarte Garapenerako Forua (estatu-mailako erakunde, mugimenduz eta GKEz osatutako 19 sare biltzen ditu) ekimen sinetsuak eta fidagarri bilakatu da Estatuaren eta herrialdearen politika publikoak gainbegiratzeko lanetan. Zenbait ekimen abiarazi ditu Estatutako biztanle baztertuak –dalitei, tribuei, emakumeek, haurrei, arrantzale txikiak eta antolatutako gabeko langileak– kezka nagusiak Tamil Naduko Gobernuak gizarte-politikaren funtsezko helburu bihurtu daitezela.

### **“NORENA DA KOSTA?”**

Social Watch – Tamil Nadu zentroaren kezkarik nagusietakoa honako hau izan da: nonahi sortutako ahotsen oihartzunaren erdian kaltetutako pertsonen ahotsa ez galtzea. Hori dela-eta, hondamendia gertatu eta berehala, Social Watch – Tamil Nadu antzeko helburuak dituzten beste erakunde batzuekin bat egin eta “Herritarren Foroa” osatu zuten, Tsunamiak kaltetutako pertsonen alde lan egiteko. Ekimen horren bidez abokatuak, akademikoak eta administrazio zibileko langileak bildu zituzten: horiek guztiek irmoki sinesten zuten irtenbideak kaltetutako pertsonen eman behar zituztela. Antolatutako zenbait prentsaurrekori esker, kaltetutako arrantzaleek eta kostaldeko komunitateek (emakumeek, batez ere) komunikabide nagusiekin harremanetan jartzeko aukera izan zuten. Horren guztiaren ondorioz, pertsona horien ahotsak grabatuta eta jasota geratu ziren.

Enpresa-talde handi batzuek presioa egiten dute Gobernuan kostaldeko komunitateak beste leku batzuetara eraman ditzan eta, horrela, kostaldeko eremuak bereganatu eta inolako ardura ekologikorik gabe ustiatzeko aukera izan dezaten. Horretarako, Tsunamia aitzakiatzat erabili eta kaltetuen beldurrekin eta ziurgabetasunekin jolasten dute. Egoera horren aurrean, Herritarren Foroak nabarmendu egin du kostaldeko komunitateek bertan bizitzeko duten eskubide-lehentasuna.

### **“NORA DOA DIRUA?”**

Tsunamiaren ondoren, diru-kopuru izugarriak –emariak eta maileguak – iritsi dira, eta oraindik iristen ari dira. Egia esan gehiegizko dirua da hori. Nazioarteko Agentziek ezin izan diote aurre egin herrialde aberatsetako herritarren erantzunari, eta tokiko lankideak oso denbora laburrean diru-kopuru handiak gastatzera behartu dituzte ezinbestean, talde horiek diru hori guztia zentzuzko moduan gastatzeko zenbaterainoko gaitasuna duten kontuan hartu gabe. Halaber, hainbat finantza-erakunde (Munduko Bankuak eta Garapenerako Asiako Bankuak, adibidez) ere testuinguru horretara hurbildu dira, berreraikuntzaren aitzakiarekin. Bestalde, Gobernu zentralak eta estatu-gobernuek diru-kopuru handiak dituzte kudeatzeko zain: funts propioetako eta jasotako emarietako dirua, hain zuzen.

Diru-kopuru izugarri horren barruan, gardentasuna eta kaltetutako pertsonen parte-hartzea ez dira inondik inora ere agertu. Halaber, kontratistek, alderdi politikoek eta, are gehiago, agentzia pribatuek funtsen zati handi bat eurentzat desbideratu duten bitartean, kaltetutako komunitateak alferrik saiatu dira legez dagokien diru hori bereganatzen.

Tsunamiaren ondoko lehenbiziko egunetan zehar, Social Watch – Tamil Nadu zentroak hainbat erakunderekin batera egin zuen lan kaltetutako pertsonen laguntza eta kalte-ordainak jasotzeko duten eskubidea bermatzeko. Horretarako, tokiko epaitegietara eta gorteetara eskariak idazten lagundu zieten kaltetuei eta hainbat mobilizazio sustatu zituzten.

Une hauetan, eta gizarteko hainbat sektorek hala eskatuta, Social Watch – Tamil Nadu zentroak buru-belarri dihardu Tsunamiarekin lotutako finantzaketa guztia (bai publikoa, bai pribatua) modu independentean gainbegiratzeko mekanismoak garatzen. Alde horretatik, hainbat ekimen bultzatzeko aukera aztertzen ari dira –esaterako, Gizarte Ekitatearen aldeko Ikuskaritzak, Epaitegi Herrikoiak edo Entzutegi Publikoak– eta, hemendik gutxira lanari bete-betean heltzea espero dute.

### **“NORK DU TSUNAMIAREN ARDURA?”**

Jainkoak? Naturak? Giza faktoreak zerikusia du hondamendi natural guztietan. Tsunamiaren hondamendiak agerian utzi du horren ondorioak gizakiek eragindako arrazoiengatik areagotzen direla. Itsas azpian egindako entsegu nuklearrek izan ditzaketen lotura globalak alde batera utzita, Tsunamiak gehien zigortu zituen eremuak legez kanpoko hondar-ustiapenak eta mangladien zein kostaldeko beste babes natural batzuen suntsipenak jasan zituztenak izan ziren. Eremu horietako garapen-ereduak modu arrisksuan bultzatu ditu kostaldeko biztanleak itsaso ondora.

Prebentzio-neurririk ezak eta gobernuak hasieran izan zuen patxadak benetan harrigarriak izan ziren. Beste iturrietatik berria jaso





Enpresa-talde handi batzuek presioa egiten dute Gobernuan kostaldeko komunitateak beste leku batzuetara eraman ditzan.

zuten pertsonen bizilekutan –ordubete lehenago izan arren– hainbat bizitza salbatu ziren. Gaur egun, Social Watch – Tamil Nadu zentroak Gujarat (2001eko lurrikara) eta Orissa (1999ko superzikloia) Estatuetakoz gizarte zibileko taldeekin dihardu lanean “Hondamendietarako Alerta Sare” independente bat osatzeko. Bien bitartean, “Sorospenerako Kode” bat eta Hondamendiak Kudeatzeko Lege bat ere prestatzen ari dira. Azken hori publikoki eztabaidatuko da eta Estatuak Gobernuari aurkeztuko zaio.

Ezbehar bat ezustez gertatzen denean, larrialdietarako laguntzak jende ugariaren arreta erakartzen du. Alabaina, laguntza hori guztia kudeatzeko sistema garden eta arduratsu bat sortzen ez bada, birgaitze- eta berreraikitze-lanetarako ahalegin guztiak nahasi eta galdu

egiten dira, hasierako helburuaren guztiz aurkakoa lortuz. Beraz, ezinbestekoa da benetan gobernantza egokia sustatzea, komunitate kaltetuek beren bizitza berreraikitze eta bizi-baliabideak berreskuratzeko aukera izan dezaten. Azken bederatzirteetan, Social Watch – Tamil Nadu zentroa gobernantza egokia sustatzeko lanean aritu da, garapen-prozesu globalen baitan. Arrakastak urriak eta noizbehinkakoak izan dira, baina lorpen gutxi horiek eta gizarte zibileko hainbat taldek adierazten dituzten eskariak bultzatu egiten gaituzte aurrera jarraitzera. •

**Tsunamiak elkartasun-uhin  
ikaragarria piztu zuen mundu  
osoan.**

# Gizarte-aitzindaritzea etikoari buruzko eskolak

---

**Daniel Vásquez**

GIZARTE EKINTZARAKO GOTZAIN BATZORDEA. PERU

Gizarte Ekintzarako Gotzain Batzordea Peruko Gotzain Batzarraren baitako erakundea da, eta Peruko gizarte-pastoralta bultzatzea eta koordinatzea du helburu. Erakunde horren estrategietako bat herrialde horretan parte-hartzean oinarritutako demokrazia bultzatzea da. Estrategia horren baitan, Gizarte Aitzindaritzea Etikoari buruzko Eskola (ELSE) dago, eta herrialdeko hiru eremutan abiarazi da: Piura/Tumbesen (iparraldean), Alto Mayo San Martín (ipar-ekialdean), eta Junín (herrialdearen erdialdean).

Dokumentu honetan kontatuko dugun esperientzia Juníngo Gizarte Aitzindaritzea Etikoari buruzko Eskolako (ELSE) da: eskola hori herrialdeko erdialdeko eremu horretako lau egoitzetako 35 aitzindari osatzen dute. Eskolaren helburu nagusia gizarte-aitzindari gaitasunak indartzea da, bakoitzak bere herriko gizarte-prozesuetan gehiago parte hartuz parte-hartzean oinarritutako demokrazia lortzen lagun dezaten: demokrazia-eredu horretan, pertsona behartsuenen eta baztertuenen beharrak eta asmoak kontuan hartzen dira erabakiak hartzeko orduan. Aldi berean, eskolaren beste helburu bat parte-hartzaileei hazten laguntzea da, ez beren onarpen pertsonalean soilik, guztion onurerekiko arduraren baizik, konpromisoaren eta bizitza pertsonalaren artean egon behar duen koherentzia alde batera utzi gabe. Azkenik, aitzindari horien arteko artikulazio-eremu bat sortu nahi izan zen, informazioa eta laguntza emo-

zionala emateko; izan ere, aitzindari horiek bizi dituzten errealitateak zailak eta gogorrak izaten dira sarritan.

Eskolan hastean, aitzindari horiek dagoeneko lanean ziharduten tokiko garapen-prozesuetan, tokiko gobernuetan, gobernari-lanetan eta, zenbait kasutan, pobreziaren aurkako mahaitan, irakaskuntzan (eskola publikoetan) edo parrokiatiko edo auzoetako aitzindaritze-jardueretan. ELSE oso lagungarria izan zen beren lana aberasteko eta tokiko eremuetatik probintzia- eta eskualde-eremuetara igarotzeko.

Esperientzia bi urteko lanaren ondorioz gauzatu zen, tailerrak eta eremu-lanetako epealdiak tartekatuz. Horietan, nork bere komunitatearen gizarte-errealitateari aplikatzen zizkion tailerretan ikasitako edukiak eta tresnak. ELSEko egoitza bakoitzean tutore bat zegoen, gutxienez, eta horiek lagundu egiten zieten aitzindariei beren ikaskuntza-prozesuan, tailerretan emandako informazioa osatuz, eta aurrean zituzten erronken inguruko hausnarketak bultzatuz. Bost gai landu ziren: errealitate nazionala, gizarte-aitzindaritzea etikoa, garapen solidarioa, Elizaren gizarte-dotrina eta hiritartasuna eta partaidetza.

ELSEk lagundu egin zuen aitzindaritzea-mota alternatibo bat garatzeko berez kaltegarriak diren faktoreak indargabetzen. Hona hemen eskolaren paisaia osatu zuten elementu nagusiak: errealitatearen gordintasuna (jen-



Aitzindariak dagoeneko lanean ziharduten tokiko garapen-prozesuetan.

dearen pragmatismoak eta utilitarismoak zuzendua), bizitzaren ikuspegi materialista, utzikeria, ustelkeria eta nagusikeria, gizarte-zatiketa, gehiegizko gatazka-egoera eta gizartearen sentsibilitaterik eza. Egoera negatibo horrekin batera, Juníngo herritarren artean oro har nagusi den autoestimua ere aipatu behar da: egoera horren sorburua ahaztea eta bazterketa dira, baita herrialdean oraindik nagusi den erabateko zentralismoa eta 80ko eta goeko hamarkadetan eremu horretan bizi izan zuten indarkeria-egoera ere, oraindik horren ondorioak jasaten ari baitira. Hain zuzen, ELSEn parte hartu duten ia pertsona gehienek beren komunitateko historia traumatikoaren oinordeko dira. Horrekin guztiarekin batera, herritar gehienak pobrezia gorrian bizi dira eta horrek konformismoa eragiten du gehien artean. Gutxi batzuek, ordea, etekina ateratzen dute egoera horretatik, bai politikaren, bai merkataritzaren, bai negozioen arloan. Eskualdean gehiegizko banakakotasuna da nagusi, eta jendearen arteko konfiantzarik eza nabaritzen da: horrenbestez, biztanle gehienek beren burua defendatzeko premia sentitzen dute une oro.

Ekimen horren arrakastaren arrazoi nagusietako bat ELSEk bere diskurtsoan eta jardunean aldarrikatzen zuen zerbitzu-mistika izan zen. Zerbitzu-mistika horren bidez, baloretan

oinarritutako gizarte-aitzindaritzak berri bat bilatu nahi izan zuten. Hortik dator, hain zuzen, eskolaren izena: “gizarte-aitzindaritzatikoa”. ELSE eskolaren bizitza-estiloa elkarren arteko tratatu-berdintasunean eta errespetuan oinarritu zen: “elkarri pertsona gisa tratatzeko modu bat: nor bere burua onartzeko eta besteengatik arduratzeko modu bat, hain zuzen”. Bizitza-estilo hori balore horiek identifikatzeko eta bizitzeko *metodologia* bihurtu zen, partaideei inguruko errealitateari aurre egiten laguntzeko. Azken finean, bizitza-estilo horrek ikuspegi fededuna zuen oinarrian eta hori oso lagungarria izan zen aitzindariak beren gizarte-konpromisoa aberasteko. Horrela, aitzindariak beren lana besteei zerbitzatzeko eta guztion onurarako egin behar zutela ulertu zuten, pertsona guztiek (behartsuenek, batez ere) beren bizitza hobetu ahal izateko baldintzak sortze aldera.

Mistika horren adibide esanguratsu bat La Oroya herriko aitzindariena da: herri hori itsas-mailatik 3.800 metrora dago eta herrialdeko kutsatueneko bat da. Aitzindari horiek beren komunitatearen arazo larrienarekiko interesatzen ikasi behar izan zuten, enpresa transnazional bati aurre egin eta jendearen osasun-eskubidea defendatu ahal izateko (erabat ezohikoa izan arren, enpresak herritar ugari bereganatu zituen lan-eskubidea defendatzeko, horretarako beren osasun-eskubideak alde batera utzi behar bazituzten ere). Mistika hori gabe talde horrek ezin izango lio-

**Aitzindariak konturatu egin ziren beren lanak haiengan fidatzen ziren jendeari ere boterea ematen ziela.**



keen bere borrokari eutsi; izan ere, beren herriko eta parrokiako kide ugari bizkarra eman zieten eta mehatxuak eta irainak jasan behar izan zituzten herritarren eta enpresak bereganatutako komunikabideen aldetik. Zerk bultzatu zituen aurrera egitera? Hainbat herritarren osasun-baldintza tamalgarriak bere egin izana. Eskolaren ikuspegi humanista eta fededun horrek indarberritu egin zituen.

Aitzindariak konturatu egin ziren beren lanak haiengan fidatzen ziren jendeari ere boterea ematen ziela: beren eskubideak defendatzeko, gizartea zaintzeko prozesuetan parte hartzeko, hobeto antolatzeko eta beste talde batzuekin batera lan egiteko. Hona hemen parte-hartzaile baten hitzak: “ELSEk bultzatu egiten zituen parte-hartzaileak ELSEk berak egiten zuena egitera, ELSE osatzen zutenen arteko eguneroko bizitzaren bidez”. Hau da, “eskola aitzindarien bizitzetan sartzen zen”, eta errespetuan, elkarrenganako begirunean, elkartasunean, soiltasunean eta besteen onurerekiko benetako interesean oinarritutako kultura sortu zen. “ELSEk askatzen lagundu zigun, ziurtasuna eman zigun eta gu geu izateko konfiantza sendotzen lagundu zigun”.

Aitzindariak beren buruan gehiago fidatzeko bizi izan zuten prozesua kontatzen dute. Hasieran zaila izan zen, eta hainbat galdera sortzen ziren beren artean: nola parte har dezakegu betiko parlamentarien edo politikarien antzik izan gabe? Nola parte har dezakegu taldeen arteko lehia-gose hori gabe? Pixkanaka, gakoa nork bere izaera garatzean zegoela konturatu ziren. Horrela, norberaren *egoeratik* abiatuz, bakoitzak duena eta bakoitza dena besteekin partekatu ahal izango du eta errealitatearekiko konpromisoa

**Tutoreen laguntza ezinbesteko faktorea izan zen prozesu hori indartzeko eta, oro har, hezkuntza-estrategiak besteen onuraren alde eta ekologiaren alde lan egitera bultzatu zituen.**

sendotu egingo da, besteekin batera hori eraldatzeko eta *jendearen bizitza hobetzeko*. Hau da, aitzindariaren irudia harremanen bidez jendea gizatiarrago bihurtzeko gai den norbait dela ulertzen hasi ziren, besteen auto-estimua aberastuz, eta jendeari segurtasuna, maitasuna eta begirunea eskainiz. Horrela, aitzindaritzaren mota horretan besteengandik ikasi zuten (elkarren arteko ikaskuntza) aitzindari desberdinak izaten, partekatzean, elkartasunean eta etikan oinarritutako aitzindaritzaren garatuz.

Nortasun hori tailerretan finkatutako presakuntza-prozesuan islatzen joan zen, hori guztia landa-eremuetako lanetako partaide-tza- eta hausnarketa-prozesuetan egiaztatuz. Tutoreen laguntza ezinbesteko faktorea izan zen prozesu hori indartzeko eta, oro har, hezkuntza-estrategiak besteen onuraren alde eta ekologiaren alde lan egitera bultzatu zituen. Azken puntu horretan, irratsaio bat zuzentzeko aitzindarien gaitasunak garatzeaz gain, Huancayoko artzapezpikutzaren ahaleginak ere lagundu egin ziren Mantaro ibaia mende erdian jasan duen kutsaduratik babesteko.

Nolabait esateko, ELSEk bezalaxe, aitzindariak ere beren burua eraikitzen joan ziren besteekiko harremanetan, eta beren kabuz ikasi zuten (tutoreen eta taldeen laguntzaz) *gizar-*



ELSEko bizitza-estiloak lagundu egin zien aitzindariari beren gizarte-konpromisoa aberasten.

*te-aitzindari etiko* izaten. Horrelako aitzindari izateko kontuan hartu ziren elementuen artean, honako hauek dira aipagarrienak: ziurtasun-zentzua nork bere buruari behar duen denbora emateko eta nork bere mugak lasai onartzeko; norberarekiko eta besteekiko konfiantza, bai familia-bizitzan, bai gizarte-bizitzan; humorea; aztertzeke eta proposatzeko gaitasuna; asertibitatea, tolerantzia eta enpatia; lasaitasuna arazoan aurrean; erantzukizunak hartzeko prestasuna, bakoitzari dagokion erantzukizuna hartzen utziz; soiltasunean, zintzotasunean, giza harremanetan eta berdintasunean oinarritutako bizitza-estiloa; eta proaktibotasuna.

Esandako guztian sakontzeko, interesgarria da egiaztatzea bizitzaren fede-ikuspegiak (edo aitzindari batzuen ikuspegi humanistak, fede-ikuspegi horrek aberastua) aitzindarien

bizitzak gizatiarrago egin zituela eta, horrez gain, besteen giza garapena ere beren gain hartzera bultzatu zituela. Hain zuzen, ELSEko partaide guztiak ezagutzen zuten beren komunitateetako errealitatea eskolan sartu aurretik; alabaina, eskolan Elizaren gizarte-dotrinaren edukiak ikasi zituztenean, lan egiten hasi zirenean, guztiak landu zuten jendearen (behartsuenena, batez ere) sufrimenduak eta eskariak entzuteko gaitasuna. Ingeniaritzan graduatu zen aitzindarietako bati honela esan zion amak: “Begira, begira haur behartsu horri. Gogoan izan zeu ere horrelakoa izan zinela eta, orain, profesional bihurtu zarenean.... lagundu beharrean daudenei. Egin besteen alde nik zure alde egin nuena”. Esperientzia-mota horiek Eskolarekin eta “besteekin partekatzen den fedearen” mezuarekin aberastu ziren. •

# Hirietako emakume behartsuen esnatzea

**Finaflor Tayalan and Anna Marie Karaos**

ELIZAKO ETA GIZARTE GAIETAKO INSTITUTUA. MANILA, FILIPINAK

1995eko abenduan DAMPA sortu zen. Urte hauetan guztietan, hirietako pertsona behartsuz osatutako federazio horrek Manilako metropoli-eremuko eta inguruetakomunitate behartsuei antolatzen lagundu die, beren bizilekuetatik derrigorrez ateratzeko mehatxuei aurre egin diezaieten. Eskuarki, bizilekuak uztera behartzen dituzten familiak oinarritzko gizarte-zerbitzurik gabe geratzen dira. Horrenbestez, kaltetutako familientzako oinarritzko zerbitzuak, hezkuntza eta alfabetizazioa eta laguntza-programak garatzen ditu DAMPAk. Horretarako, erakunde horrek komunitateen antolakuntza bultzatzen du, komunitateetan oinarritutako ekintzak abiaraziz eta behartsuen aldeko legediak (tokikoak eta nazionala) sustatuz.

Titulartasunarekin, bizilekuekin eta oinarritzko zerbitzuekin lotutako alderdietan konpromisoak hartzen zituzten heinean, DAMPA osatzen duten pertsonak pixkanaka ohartu ziren generoarekin lotutako arazoak zuzenean lantzeko garrantziaz. Eguneroko lanean argi ikusi zuten emakume gehienek bizi dituzten desabantaila- eta bazterketa-egoerak. Filomena Duka DAMPAko kideak honela azaldu zigun:

“Gure gizartean bazterketa- eta gehiegikeria-egoera gehienak emakumeek jasaten dituztela ohartu ginen, batez ere etxebizitzarekin lotutako arazoak eta bizilekuak uzteko mehatxuak tartean direnean.

Taldeak antolatzen ditugunean, eskuarki emakumeak etortzen dira, gehienetan horiek direlako etxean geratzen direnak, senarrak lanera doazen bitartean. Etxean geratu behar dutenez, emakumeek jasaten dituzte gehien ur-gabeziarekin, zikintasunarekin edo elikagai-ezarekin lotutako arazoak. Hala ere, emakumeek baime-na eskatu behar zieten senarrei bileretara joan ahal izateko. Tradizionalki, emakumeak etxean geratzen dira familiaren beharretaz arduratzeko: ez dute bere kabuz erabakitzeke aukerarik. Hori hala izanik ere, bilera horiek ez dira soilik emakumeentzako onuragarriak, familia guztiarentzat baizik”.

Orduz geroztik, genero-dimentsioa egindako lan guztietan sartzen saiatu da erakunde hori. Horretarako, Filipina Lihok Fundazioaren laguntza izan dute; erakunde horrek, generoan oinarritutako antolakuntzari buruzko pres-takuntza-programa batzuk eman dizkie. Emakumeekin lotutako alderdietan oinarritzea lagungarria izan da hiriko komunitate behartsuetako haurrengana eta adineko per-sonengana hurbiltzeko, batez ere osun-gaiei dagokienez.

**Emakumeei laguntzeko tokiko aurrekontuak**

2004. urteaz geroztik, DAMPAk estrategia bati heldu dio tokiko gobernuek ere hirietako emakume behartsuentzako osasun-zerbi-



DAMPA has been organizing urban poor communities in and around Metro Manila.

tzuak antolatzen has daitezzen. Lehenik eta behin, DAMPA tokiko aitzindariengana hurbildu zen beren herrian emakumeentzako zenbat eta zer programa abiarazi zituzten galdeztzeko. Tokiko aitzindari gehienek behar adina aurrekonturik ez zutela erantzun zuten.

Hala ere, Genero eta Garapen Kodearen arabera (GAD) –“Generoarekin lotutako konpromisoen Legea” betetzeko onartutako tokiko ordenantza–, tokiko gobernuak aurrekontuaren ehuneko bosta erabil behar dute, gutxienez, emakumeekin lotutako alderdiak eta gaiak lantzeko.

Evelyn Abagao DAMPAko presidentek lehenengo GAD programa nola abiarazi zuten kontatzen du:

“Tokiko aitzindariari GAD kodearen kopia bat eman eta tokiko funtsen ehuneko bosta Genero eta Garapen gaietarako erabil behar direla dioen atala irakurri genion. Gainera, GAD kodearen kopia bat ere utzi genion. Hala egin izan ez bagenu, tokiko aitzindariak ez luke sinistuko guk badakigula aurrekontuaren zati bat emakumeen arazoekin lotutako gaietarako gorde behar dela”.

Gaur arte, bi GAD “bulego” ireki dira Quezon City-ko II. Barrutiko bi herritan: horietan bizi

da, hain zuzen, Metro Manilako behartsu-kopururik handiena. Bi herri horiek Barangay Commonwealth eta Barangay Bagong Silangan dira. Arrakasta handiz garatu den programetako bat –GADaren aurrekontuari esker egin da– emakumeen artean Papanicolau proba egitearena izan da. GAD programak 50 peso kobratzen ditu pobra zitologiko horietako bakoitzaren truke; ospitale pribatuek, aldiz, 350 peso kobratzen dituzte, eta Gobernuko osasun-zentroek, 100 peso.

GADen bulegok *Botika Binhi* izeneko zerbitzua ere eskaintzen du; hau da, komunitateek kudeatutako farmazia, komunitatearen taldefuntsei esker sortua.

Zerbitzu horiek laguntzeko, DAMPAk genero-ikuspegiari buruzko prestakuntza-ikastaroak antolatzen ditu, baita minbiziaren prebentziorako mintegiak ere. Prestakuntza-ikastaro horietan tokiko aitzindariak eta komunitateetako elkarteetako hainbat kidek parte hartu dute, batez ere bizilekuak uztearen aurkako erresistentzian lanean diharduten erakundeetako kideak. Parte-hartzaileetako batek mintegietan ikasi zuena gogorarazten digu:

“Minbiziaren Prebentzioari buruzko Mintegian, bularreko minbizia hautematen ikasi genuen. Hala ere, onena genero-ekita-

**Etxean geratu behar dutenez, emakumeek jasaten dituzte gehien ur-gabeziarekin, zikintasunarekin edo elikagai-ezarekin lotutako arazoak.**

teari buruzko hainbat gauza ikasi genitue-  
nean etorri zen (Generoari eta Garapenari  
buruzko Orientabide Mintegia). Gizonek  
egiten dutena egiten dutela ere, geu ere  
horretarako gai gara. Horrez gain, gizon bat  
emaztea jipoitzeagatik atxilotu dezaketela  
ere ikasi genuen. Gaur egun, komunitateko  
emakume gehiagok salatu dituzten jasan-  
dako tratu txarrak eta bortxaketak. Lehen  
ez bezala, agian orain emakumeak ez dira  
gehiagikeriak salatzen beldur; izan ere,  
lehen emakume bat jipoitzea etxe barruko  
liskartzat hartzen zen eta etxetik kanpo ezin  
zen horri buruz hitz egin. Zenbait kasutan,  
gure auzoan ere horrelako gehiegikerien  
aurka egin behar izan dugu. Kasu horietan,  
egindakoagatik kartzelara joan daitekeela  
jakinarazten diogu senarrari.”

Gizonen parte-hartzea da prestakuntza-  
ikastaro horietan nabarmendu beharreko  
alderdietako bat. DAMPAko aitzindari baten  
arabera:

“Gure prestakuntza-moduluak ez dira  
gizonen aurkakoak: gizonak ez ditugu  
etsaitzat hartzen. Gizonek ere egoera eza-  
gutu dezaten saiatzen gara, haiek ere ema-  
kumeen egoera hobetzeko zerbait egin  
dezaten. Horixe esan nahi dugu “botere-  
dun feminismoarekin”.

### Gehiago lortzea sare-lanaren bidez

Ekintza horiek guztiak aurrera eraman ahal  
izateko, sare-lana bultzatu da beste elkarte  
eta gobernuz kanpoko erakunde batzuekin.  
Erakunde horietako bat Minbiziaren Elkarte  
Filipinarra da; horrek DAMPAri Papanicolau  
probak administratzen lagundu dio, baita  
“Minbiziaren Prebentzioari” buruzko minte-  
giak antolatzen ere. Bestalde, udal-gobernu-

**Lehen ez bezala, agian orain  
emakumeak ez dira  
gehiagikeriak salatzen beldur;  
izan ere, lehen emakume bat  
jipoitzea etxe barruko  
liskartzat hartzen zen eta  
etxetik kanpo ezin zen horri  
buruz hitz egin.**

ko Genero eta Garapen Baliabideen Koor-  
dinazio Bulegoarekin batera ere lanean aritu  
da DAMPA, baita generoarekin lotutako gaiez  
arduratzeko izendatu duten sailburuarekin  
ere. Koordinazio horri esker, baliabideak par-  
tekatu egin ahal izan dira, bai kapitalari dago-  
kionez, bai langileei dagokienez, bai teknolo-  
giari dagokienez.

### Emakumeak indarkeriaren aurka

Emakumeen osasunari emandako garran-  
tziaren ondorioz, DAMPAk arreta handiagoa  
jarri du emakumeen aurkako indarkeriaren  
gaitan. GAD bulegoetan sexu-indarkeriarekin  
eta tratu txarrekin lotutako hainbat kasu  
hauteman dituzte, gero eta gehiago gainera.  
Egoera horri nolabaiteko erantzuna emate  
aldera, aholkularitza eskatu zioten SALIGAN  
(Centro de Asistencia Legal Alternativa)  
GKEaren lege-baliabideen zentroari; horre-  
kin batera, gehiegikeriak jasaten dituzten  
emakumei aldi baterako babesa ematea  
erabaki zuten, etxe seguru bat sortuz.  
Evelyn Abagao DAMPAko presidentek  
honela esan digun:

“Kasu ohikoenak tratu txarrak eta bortxake-  
tak dira. Gehiegikeria horietako biktimek  
babes eraginkorra behar dute erasotzaileen





Tokiko gobernuek aurrekontuaren ehuneko bosta erabil behar dute, gutxienez, emakumeen aldeko programak bultzatzeko.

aurrean. Gainerako biktimak gure etxeetan eta aterpetxeetan geratzen dira aldi baterako, ez baitute joateko beste lekurik. Haur txikien esklabotasun-kasuak ere gertatzen dira; kasu horietan, ama bera da proxeneta. Hori dela-eta, etxe seguru bat sortzea behar-beharrezkoa da. Barruti bakoitzean etxe seguru bat izatea oso lagungarria izango litzateke, eta dagoeneko ari gara gai honi buruzko proposamen bat prestatzen, Gobernuari aurkezteko”.

Gaur egun, DAMPAK gizarte-presioan eta eragin politikoan duen esperientzia herrialdeko hainbat eskualdetako behartsuez osatutako hainbat elkarterekin partekatzen dute. Elkarte horiek guztiek DAMPAK emakumeen arazoetarako aurrekontua instituzionalizatze-ko egin duen adina ahalegin egingo balute

eta horrek beste arrakasta lortuko balute, herrialdeak benetako aurrerapausoak eman-  
go lituzke Milurteko Garapen Helburuak lortze aldera. •

**Kasu ohikoenak tratu txarrak eta bortxaketak dira. Gehiegikeria horietako biktimek babes eraginkorra behar dute erasotzaileen aurrean. Gainerako biktimak gure etxeetan eta aterpetxeetan geratzen dira aldi baterako, ez baitute joateko beste lekurik.**

# Bake-alternatiben eta garapen-alternatiben bila

IKERKETA ETA HERRITAR HEZKUNTZA ZENTRUAK BIDLITA

Atrato Beheko Komunitate Batzordeak eta Erakundeak biltzen dituen Elkarte (ASCOBA) etnien eta lurraldetasunean oinarritutako erakundea da, nekazari beltzez eta mestizoz osatua. Erakunde horren helburu nagusietako bat norberaren lurraldean bizitzaren alde egitea da, baita komunitate guztien kalitatea hobetzea ere. Horretarako, etnogarapenean oinarritutako planak osatzen eta gauzatzen dituzte: herritarren behar ekonomikoei, kulturaleri eta politikoei erantzungo dieten planak, hain zuzen. ASCOBAk zazpi arrotako 54 Komunitate Batzorde ordezkatzeko ditu, guztira.

Elkarte hori hogeitau urte baino gehiagoko ibilbide baten ondorioz sortu da. Horren eginkizuna 1997an areagotu zen, eskualdeko gatazka armatuak txarrera egin zuenean. Historikoki, Kolonbiako Estatuak baztertu egin du Chocóko departamendua (Atrato Beheak, bereziki), bai gizarte-mailan, bai maila ekonomikoan. Horren guztiaren ondorioz, legez kanpoko hainbat talde armatu finkatu egin dira eta horietako bakoitzak lurraldea kontrolatu nahi du. Horrela, Indar Publikoek eta talde paramilitarrek FARC gerrillaren aurka izandako gatazka armatuak Kolonbiako historian inoiz dokumentatu den behartutako desplazamendurik handiena ekarri zuen berekin: 1996ko abendutik 1997ko martxora bitartean 6.000 nekazari beltz eta mestizo baino gehiago iritsi ziren Pavarandóko udalerrira.

Orduz geroztik, komunitateek (Elizak lagunduta), nazioarteko elkarlanerako zenbait era-

kundek eta giza eskubideen aldeko hainbat elkartek lanean dihardute eskualdeko egoera kritiko horri konponbideak aurkitzeko. Komunitate horiek antolakuntza-prozesu serio bat egin dute Estatuari eta talde armatuei beren giza eskubideak errespetatu ditzatela eskatzeko eta beren eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak errespetatzen dituzten politikak gauza ditzatela eskatzeko. Horren ondorioz, Bake Komunitateak sortu ziren 1998an. Garai hartan, Bake Komunitateak izan ziren estrategiarik egokienak Atrato Beheko biztanleak beren etxetara itzuliko zirela bermatzeko eta Estatuari eskualdeko hainbat arazoren inguruan arreta eskatzeko ere.

Antolakuntza-prozesu horrek enbaxaden eta herrialde adiskideen babesak izan zuen; izan ere, eskualdeko gatazka sozialari irtenbideak aurkitzen laguntzeko konpromisoa hartu zuten komunitateekin, baita bizitza-baldintzak hobetzeko politiketan eragina izateko konpromisoa ere. Paradoxikoki, eta herrialde adiskideen laguntzari esker, Bake Komunitateen prozesuak aintzatespen handia lortu zuen nazioartean: Estatuaren erantzuna, berriz, patxadatsuegia eta lausoegia izan zen une oro.

Bake Komunitateen antolakuntza-esperientzia oinarri hartuta, Atrato Beheko herritar beltzak eta mestizoak ez ziren talde armatuen interesei aurre egitera mugatu (biztanle zibilak gerraren logikan sartu nahi zituzten); aitzitik, berretsi



Legeak arbasoen lurraldeetan talde-titulazioa izateko eskubidea aitortzen die komunitate beltzei.

egin zituzten etnia beltza diren aldetik dagozkien eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Horrela, komunitateak argi eta garbi mintzatu dira beren antolakuntza-prozesuaren indartzea baloratzeko orduan; horien ustez, prozesu hori beharrezko estrategia egokia izan da, ez soilik talde armatuen gehiegikeriei aurre egiteko, beren lurraldeak eskualdean nagusitu nahi diren proiektu handien aurrean ere defendatzeko baizik.

Egoera konplexu horren erdian, Atrato Beheko komunitateak antolatu egin dira gizarte-mugimendu indartsua eta bateratua finkatzeko, 1993ko 70. Legeak barne hartzen dituen arauan oinarri hartuta; izan ere, horixe da komunitate beltzek esku artean duten tresna juridikorik sendoena, eta horretan aitortu egiten da beren arbasoen lurraldeetan talde-titulazioa izateko eskubidea.

Etnian eta lurraldetasunean oinarritutako elkarte gisa osatuta eta Komunitate Beltzen legearen babespean, ASCOBak eta Komunitate Batzordeek kapital handiaren interesen eta gizarte-gatazken aurka borrokatzen hasi dira. Interes horiek megaproiektu ekonomikoak ezarri nahi dituzte eskualdean, kanpoko garapen-eredutan oinarrituz, eta horrek arri-

kuan jarriko luke herri beltzen nortasun kulturala eta autonomia. Prestatzen ari diren proiektuen artean, honako hauek aipa daitezke: olio-palmondoaren hazkuntza, natur baliabideen (egurra, esaterako) bereizi gabeko ustiapena, ozeano-arte Atrato-Truandó ubidearen eraikuntza (eta horrek dakartzan mehatxuak) eta biodibertsitatea ikertzeko eta ustiatzeko proiektuak. Horiek guztiak AEBekin sinatutako merkataritza askeko tratuak dakartzan globalizazio-politiken atal bat baino ez dira.

Horrela, ASCOBak komunitateen, erakundeen, Estatuaren eta gizarte gainerako eragileen arteko elkarrizketa-modu desberdin bat proposatzen du, Komunitate Batzordeen integrazioa bultzatu eta komunitateen partaidetza aktiboa piztu nahi dituelako. Horrexegatik, lanerako lau ardatz estrategiko zehaztu dira: bizitzaren defentsa, lurraldearen defentsa, autonomiarekiko errespetua eta kultur nortasuna.

Lan horren atal bat garatze aldera, ASCOBak etnogarapenerako bere plan propioak sortzen hasi da, komunitateen beharrei buruzko auto-diagnostikoa eta identifikazioa eginez eta, batez ere, komunitateen gaitasunak azpimarratuz. Horrekin guztiarekin, komunitateen kultur berezitasunekin eta ingurumen-aukerekinekin bat datozen garapen-bideak bilatu nahi dituzte.

Horrela, gaur egun Atrato Beheko komunitateek ez diete soilik talde armatuei aurre egiten; aitzitik, talde etniko bat osatzen duten aldetik, beren lurraldeak ekoizpen-bitarteko bihurtu nahi dituzten erraldoi ekonomikoak eta fede txarrez lurra kendu nahi dizkietenei ere aurre egiten diete, baita beren berezitasun kulturalak, sozialak eta ekonomikoak kontuan hartzen ez dituzten politika guztiei ere. •